

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

246/2016 Foru Agindua, abuztuaren 4koa, onartzean duena 2016ko "Blas Arratibel" Artisautza Lehiaketaren deialdia

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eginkizunetako bat da artisauen sektorea sustatzea.

Beste urte batzuetan bezala, Arabako Foru Aldundiak "Blas Arratibel" Artisautza Lehiaketaren beste deialdi bat egitea aurreikusi du, artisautza jarduera piztu eta alor horretan egiten diren lanen artean ezaguerak eta esperientziak trukatzeko.

Ahalik eta zabalkunde handiena emateko, nahitaez ezarri behar da lehiaketaren deialdia, zeinari parte hartzaileak lotu behar zaizkion.

Aginduzko txostenak aztertu dira,

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea "Blas Arratibel" Artisautza Lehiaketaren 2016rako deialdia, eta bideratzea 4.320,00 euro sariak ordaintzeko.

Bigarrena. Lehiaketaren deialdia arautuko duten oinarriak onartzea. Xedapen honi erantsi zaizkio.

Hirugarrena. Arabako Foru Aldundiaren 2016ko aurrekontuko 30.5.02.36.02.22669901 partidaren kontura (xedapen erreferentzia:16.1.16.105.3575/000) ordainduko dira sariak.

Laugarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 4a

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria
JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES

ERANSKINA**2016KO "BLAS ARRATIBEL" ARTISAUTZA LEHIAKETAREN OINARRIAK****LEHIAKETAREN HELBURUA**

Lehiaketa honek artisautza alorreko jarduerak sustatzea eta bultzatzea du helburu, "Blas Arratibel 2016" sariak emanda deialdian ezarritako modalitateetan.

EREMUA ETA PARTE HARTZAILEAK

Euskal Autonomia Erkidegoan eta Trebiñuko Konderrian erroldatuta daudenek eta deialdi honetan ezarritako betekizunak betetzen dituztenek soilik hartu ahal izango dute parte lehiaketan.

MODALITATEAK

Lehiaketak hiru modalitate ditu, eta modalitate bakoitzari sari bat esleituko zaio:

a) Artisautza tradizionalari eskainitako saria.

Historikoki erabili diren materialak eta teknikak erabiliz forma klasiko ezagunak kopiatzen dituzten piezetarako.

b) Artisautza berriari eskainitako saria.

Piezak egiterakoan artisautza tradizionalan erabilitako ekoizpen prozedura eta prozesuak errespetatu arren, itxura tradizionalik izaten ez dutenentzat, material berriak, antzekoak edo berdinak erabilia.

c) Sari berezia.

Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko Konderrian erroldatuta dauden pertsonak egindako piezak baino ezingo dira aurkeztu modalitate honetan. Pertsona horiek, nahiz eta artisau bezala erregistratuta ez egon, Arabako Lurralde Historikoaren arautegiak pieza bat artisautzat jotzeko eskatzen dituen baldintzak errespetatu beharko dituzte lan egiterakoan. Sari honetara pieza tradizionalak zein artisautza berrikoak aurkez daitezke.

BETEBEHARRAK ETA DOKUMENTAZIOA

1. a) eta b) modalitateak:

Bi modalitate horiek eskumena duen erakundeak emandako artisau aitortpena duten pertsonentzat bakarrik dira.

Piezas gainera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da gutun azal itxi batean:

Egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa, NANaren fotokopia, errolda ziurtagiria eta artisaua dela adierazten duen egiaztagiria, horretarako eskumena duen erakundeak emana, zeinetan agertuko den parte hartzaileak artisau izaera deialdi hau ALHAOn argitaratu baino lehenagotik aitortuta duela. Arabako Artisautza Erregistroan izena emanda dutenek ez dute azkeneko agiri hori aurkeztu beharrik izango, egiaztapena ofizioz egingo baitzaie.

Gutun azalaren kanpoko aldean izenburu bat edo identifikatzeko moduko goiburua jarri behar da, bat etorriko dena piezaren kanpoko aldean agertuko denarekin. Pieza a) edo b) modalitateetara aurkezten den ere adierazi behar da.

2. c) modalitatea:

Parte hartzaileek, piezas gainera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute gutun azal itxi batean: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa, NANaren fotokopia, eta errolda ziurtagiria, zeinen data deialdi hau ALHAOn argitaratu den egunekoa baino lehenagokoa izan behar den.

Gutun azalaren kanpoko aldean izenburu bat edo identifikatzeko moduko goiburua jarri behar da, bat etorriko dena piezaren kanpoko aldean agertuko denarekin. Horrez gainera, pieza c) modalitatara aurkezten dela adierazi behar da gutun azalaren kanpoko aldean.

Modalitate honetan inola ere ezin izango dira saritu artisau direla aitortuta duten pertsonak.

ARAU OROKORRAK

Parte hartzaile bakoitzak pieza edo pieza multzoa aurkeztu ahal izango du, lanak hala eskatzen badu, modalitate bakoitzean.

Artisauak direla egiaztatzen ez dutenek ezin izango dute saririk irabazi artisautza tradizionalaren eta artisautza berriaren modalitateetan. Eskumena duen erakundeak eman beharko die artisau aitortuta, zeinetan agertuko den parte hartzaileak artisau izaera deialdi hau ALHAOn argitaratu baino lehenagotik aitortuta duela.

Edozein modalitateetan aurkeztutako piezek ezin izango dute eduki egilea identifikatzeko bide ematen duen inolako elementurik. Baldintza hori betetzen ez bada, pieza lehiaketatik kanpo geratuko da.

Maketak lehiaketa honetatik kanpo geratzen dira.

ZUZKIDURA

a) eta b) modalitateetako sariak 1.550 eurokoak izango dira bakoitza, c) modalitatekoa, berriz, 1.220 eurokoa.

Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2016ko gastu aurrekontuko 30.5.02.36.02.226.99.01 partidatik ordainduko da.

AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Lanak 2016ko azaroaren 2an, 3an eta 4an aurkeztu behar dira, 10:00etatik 14:00etara, BIBAT Museoren bulegoetan (Aiztogile kalea, 54; Gasteiz).

EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak izendatuko du epaimahaia, eta hark lanak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik kontatzen hasita hamar eguneko epean ezagutaraziko du bere epaia komunikabideen bidez.

Ahal den guztia egingo da epaimahaiaren ahalmen, gaitasun eta prestakuntza egokiko emakume eta gizonen ordezkariak orekatua egoteko.

Ondorio horietarako, ordezkariak orekatua izango da lau kide baino gehiago dituzten epaimahaietan sexu bakoitzak gutxienez ehuneko 40ko ordezkariak baldin badu. Gainerako kasuetan, bi sexuak ordezkariak daudenean izango da orekatua. Izan ere, halaxe xedatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 20.5 artikuluan.

Saria eman gabe geldi daiteke, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

ERAKUSKETA

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak jendarean jarriko ditu lehiaketara aurkeztutako lanak, BIBAT Museoa (Aiztogile kalea, 54; Gasteiz), 2016ko azaroaren 16tik abenduaren 9ra arte.

LANEN JABETZA

Bai saria jaso duten lanak bai saririk jaso ez dutenak beren egileen eskuetan egongo dira.

GORABEHERAK

Arabako Foru Aldundiak deialdi hau izapidetzerakoan egon daitezkeen gorabeherak ebatzi ahal izango ditu, eta ezin izango zaio errekurtsorik jarri. Gainera, ez da izango parte hartzaileek aurkeztutako piezak hondatu izanaren erantzule, hori gertatuz gero.

LANAK ITZULTZEA

Saria jaso duten lanak eta saririk jaso ez dutenak 2016ko abenduaren 12an, 13an eta 14an jaso beharko dira aurkeztu ziren lekuan, 10:00etatik 14:00etara.

Epe hori igarota, jaso ez diren piezak foru aldundi honen esku geratuko dira.

ERREKURTSOAK

Honako deialdi honen aurka zein haren ondorioz sortutako administrazio egintza ororen aurka egin daiteke, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legeak ezarritako kasuetan eta eran.